

Buletineko gaiak:

- | | |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none">1. LH6ko ikasleen elkartasun azoka2. Martxoak 8: morez janzteko deia | <ul style="list-style-type: none">• Eskolaz kanpoko ekintzen oharra• Apartekoak |
|---|--|

Berri orokorrak

1. LH6koen elkartasun azoka Katxalinen eta Izan inurriren alde

Kaixo Haurtzaro Ikastolako familiak!

LH6. mailako ikasleak gara eta diziplinarteko proiektu bezala elkartasun azoka bat antolatuko dugu.

Aurten lortzen dugun diru guztia **Katxalin eta Izan inurri izeneko elkarteei emango diogu**, bularreko minbizia duten emakumeei laguntzen dietelako. Zuek ere gure azokan parte hartu nahi duzue? Adi antolatu ditugun hiru ekintzei:

- **Eltzeitsuak** jarri ditugu dirua biltzeko gure ikastolako geletan eta herriko gunen batzuetan.
- **Errifak** salduko ditugu herrian zehar.
- **Martxoaren 8an elkartasun azoka** egingo dugu herriko plazan.

Hemen bideo azalpena: <https://youtu.be/IzjLDrqxUEQ>. Animatu eta egin zure ekarpena, denok eskertuko dugu eta!

2. Martxoak 8, asteartea: morez janzteko deia

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna denez eta egingo dugun photocall-a dela eta, **morez jantzita etortzeko edo/eta apaingarri moreak ekartzeko** gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

Haurtzaro Ikastolako Hezkidetzaren Taldea



Eskolaz kanpoko ekintzen oharak

1. Mendi Taldearen irteeraren data berria: martxoak 13

Martxoaren 13an egingo du Haurtzaro Mendi Taldeak, atzeratu ondoren, urteko bigarren irteera. Goizez izango da, Oiartzunen: **Oiartzun-Urkabe-Beloaga-Oiartzun**, Done Eztebe plazatik abiatuta.

Informazio guztia atxikitako orrialdean duzue. **Izena, berriz, inprimaki honetan eman dezakezue, martxoaren 10era arte arte, osteguna:** <https://forms.gle/LQXDzYf5fLLEmMHA8>

Apartekoak

1. Gure hilak oroitzeko ekitaldia: inkesta

2021eko martxoan landatu zuten Abaraxkako kideek Pirritx, Porrotx eta Marimototsek emandako intxaurrendoa Ibaregainen. Hemen bideoa: https://youtu.be/XRSiJxC46_I

Urtebete pasatu da, eta gure hilak berriro oroitzeko unea iritsi dela gogorarazi dute. Martxoaren 19rako, larunbata, ari da antolatzen Abaraxka ekitaldia. Eta galdera luzatu dute bertako kideek: **ZER DA EGUN HORRETAN EGITEAN NAHIKO ZENUKEENA?**

Inkestan herritarren proposamenak jaso nahi dituzte. [Hemen bete dezakezue.](#)

2. Pipiren filma eta martxoaren 8rako apaingarriak

Larunbat honetan, **martxoak 5, 16:30ean Abaraxkan**, *Pipi Galtzaluzeren* pelikula ikusiko dute eta ondoren martxoak 8rako apaingarriak sortuko dituzte.

Anima zaitetzte!

